


# Ehun pospolo beste hainbeste labirinto argitzearen

Xabier Payak 'Bob Dylan. 100 Kantu' liburuan bildutako abestiak euskarara ekarri ditu, Jokin Zaitegi beka eta Elkar argitaletxearen ekimenez



**X**abier Paya bertsolari eta itzultzailea Bob Dylanen ehun kantu euskaratzeko erronka onartu, eta sei hila-betera, Dylan bera kalean topatu izan balu, Paya autoan zihola, "uste dut azeleragailua zapalduko nuela", txantxetan dio bizkaitarrak.


Jokin Zaitegi bekaren enkarigu berezi hau burutu ostean, baina, "Dylanekin orain dudana erlazioa da nire bikotekide ohi batekin sentitu nezakeen zer-bait: sufritu genuen, baina elkar maitatu ere bai. Emaiza izan da ume oso polit bat", poztu da. Haur polit hori Elkar argitaletxeak kaleratutako *Bob Dylan. 100 kantu* bilduma da. Poesia sailaren baitan ikusi du argia, eta ez da kasualitatea. Bob Dylan kantautore estatubatuarrrak Nobel Literatura Saria jaso zuen 2016an. Suediako Akademia ospetsuaren aburuz, "poesia adierazpen berria" sortu zuen, bere kantuen bitartez.

Honeka bada, *Blowin' in the Wind*, *Mr. Tambourine Man*, *The Times They Are A-Changin'* eta beste hainbat eta hainbat erreserkiak autore poetatzat hartzen dugun heinean, honek pentsamendu eta zirrararen arkitektura bat eraikitzen du kantu bakoitzean. "Aldamio" horiek

xehetasunez aztertu ditu Payak, zeinak besteak beste Tennessee Williamsen *Desio izeneko tranbia* edota Calderón de la Barca-ren *Bizitza amets* ere itzuli dituen.

Bere azalpeni jarraiki, aldami horretan gora eta behera doa irakurlea, poetak adierazitako pentsamendu eta zirrararen ordezkariak topatuz; direla hitz soilak, figura erretorikoak, baita soinuak ere. Horrela, kantu bakoitza entzun, irakurri, sentitu,

bere testuingurua ezagutu, "jakin noiz kantatu zuen, nori..." eta abar gutzia ikertu ditu Payak. Ikerketa-lan mamitsu honekin batera, "karga pragmatiko-ko uneak" —hots, kantuak zer-bait "oso potentea" adierazten duenean, dela sentimendu bat, dela gogoeta bat—, identifikatu behar zituen, "eskolako analisi sintaktikoak bailiran", irudikatu du. Une esanguratsu horiek euskarazko bertsoan bermatzea



**"Dylanekin orain dudana erlazioa da nire bikotekide ohi batekin sentitu nezakeen zer-bait"**

funtsezkoa zen. "Agian ez daude (jatorrizko) modu edo leku igualean, baina helburua da zekenean bost emozio dituen kantu horrek, edota tristura eragin behar duen kantu erlijiosoak, euskal irakurleari beretsu eragitea", adierazi du.

#### Zubiak eraikitzearen buruhausteak

Halere, "sekulako erronka" izan da. Itzulpengintzan iaioa bada ere, Bob Dylan aparteko kasua dugu. "700 bat kantu egin ditu bere bizitzan, jarraitzen du kantuan, izan ere, horiek aldatu egiten ditu kontzertu bakoitzean!", ohartu da. Bere aburuz, kantuak pospoloak bezalakoak dira. Hau da, "piztu egiten dira, su bat eragiten dute; distira, epeltasun bat...", eta behin bukatuta, argi hori amatatzen da. Dylanen "pospoloak" ezin dira bata bestearengandik ezberdintzen. "Batzuk folka, beste batzuk popa, rocka, countrya, jazz...; gaien aldetik, bestalde, denetarik dugu ere bai: maitasuna, probokazioa, gertakizun historikoak, salaketa soziala, erlijioa eta espiritualtasuna... Kantu bakoitza labirinto bat izan da", aitortu du.

#### Kardiogramaren isla

Bere ustez, itzulpengintza-ren funtzio nagusia irakurleei mundu berriak zabaltzea da. Eta hori ez du zertan hitzez hitzekoa izan. "Dylanen *Highlands* ezin dut 'Goierri' gisa itzuli, nahiz eta literalki horrela izan. Gertutasun bat sentitzea ondo da, irakurleak ulertu behar du; baina aldi berean, leku berri batera ere eraman behar du", irizten dio.

Hortaz, "zubi-lan baten moduan" sentitzen du Payak itzulpengintza. "Zubiaz bestalde ekarriko banitu elementuak, moldatu gabe, Ikea itzulpen bat irudituko litzaidake", gogoeta egin du. Honek, ezinbestez, itzultzailearen autore lana agerian uzten du, aldarrikatzea ere baderitzona. "Imajina ezazu itzuli beharrekoa Cola Cao bat dela. Korronte batek esnea eta kakaoa bananduta emango dizkio irakurleari, berak nahasi ditzan. Ni bigarren korronteak naiz ordea: 'aizu, pertsona honek Cola Cao bat edan nahi du; beraz, saiaturko naiz horri ahalik eta gehien gerturatzen zaion edari bat sortzen. Hori da nire erronka", baieztatu du. Horretarako, abestiaren kardiograma errepikatu du maiz. "Abestiek lasai, pozik, triste edota haserre sentiarazteko gaitasun sensoriala dute, eta Bob Dylan maisua da horretan. Nire helburua zen hori oso ondo identifikatu eta sentiaraztea euskal irakurleari", dio. Hitzatze gutiz interesgarrian laburbiltzen duenez, "AEB-etako gizartetik mundu globalera ingelesez kantatutako testu poetikoak euskal herritarrentzat euskaratzea", horixe da ba, gakoak. Edo, Bob Dylanek euskaraz kantatzen duenez, "piztu pospolo bat, hoo urrun, ta dena bukatu dun, Mari Ilun!" (*It's All Over Now, Baby Blue*, Dena amaitu dun, Mari Ilun).

**Amaita Santana**

## En busca del Dylan vasco

**U**no de los (múltiples) quebraderos de cabeza de Xabier Paya, traductor de *Bob Dylan. 100 kantu* (Elkar), fue hallar una figura análoga al Nobel de Literatura de 2016 en la música vasca. Esto le habría facilitado encontrar el tono, simular la voz..., pero Dylan son muchos Dylan. Paya pensó en Eñaut Elorrieta, Xabier Lete y Gabriel Aresti, entre otros. Todos ellos aportaban algo, pero no cubrían todos los matices de Dylan. El portal *armiarma.eus* y la colección *Munduko Poesia Kaiarretan* de la editorial Susa también le fueron de gran ayuda, "en especial la traducción de los poemas de Alfonsina Storni, a cargo de Uxue Alberdi, y la de Josu Landa sobre Miguel Her-

nández", destaca en el epílogo, donde explica todas las dificultades y decisiones a la hora de hacer de "puente" entre dos idiomas tan diferentes entre sí como el euskera y el inglés. Por encima de todos, Paya destaca al traductor, escritor y acérriimo de Dylan Joxerra Gartzia, "si no fuera por su ayuda, no habría terminado esta traducción", reconoce.

Convencido de la importancia de tener un Premio Nobel traducido al euskera, Paya respira ahora tranquilo con esta referencia euskaldun para adentrarse en el universo dylaniano. Y quién sabe, tal vez alguien se anime a musicalizar alguna de estas cien letras. Xabier Paya ahí deja su colección... y el reclamo.